


ERABILERAREN ONTZIA BETE

LHn eta DBHn
IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERAN
ERAGITEKO OINARRIZKO PROPOSAMENA



Ebete hizkuntza-zerbitzuak
www.ebete.eus
2023ko otsailean

Aurkibidea

1– Abiapuntua.....	3
2– Helburuak jartzeko modua.....	5
3– Ikastetxe osorako oinarrizko prozedura proposamena.....	7
4– Ikasgeletara begirako prozedura proposamena.....	11
5– Jarraipena eta ebaluazioa.....	13

1 – Abiapuntua

Ikasleen euskararen erabileran eragin nahi izanez gero, ondorengo oinarri hauek kontuan izatea proposatzen dizuegu:

- Laguntzea
- Zertan ari garen jakitea
- Gustura aritzea

Laguntzea. Helburua gurea da: irakasleona eta eskola komunitatearena. Hau da: irakasleok gara ikasleek euskara gehiago erabiltzea nahi dugunak. Beraz, lagundu egin behar diegu. Hainbat ikaslek erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz aritzeko (gehien erabiltzen duten hizkuntza delako) eta guk lagundu egin nahi diegu euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabili dezaten. Are gehiago, ulertzen dugu beraien artean gaztelaniara jotzea ohikoa dela bizi garen testuinguruak horretara eramaten dituelako eta, gainera, eskolaz kanpo beraien arteko harremana gaztelaniaz bada hainbat ikasleei elkarri euskaraz aritzea arrotza egitera ere iristen da. Beraz, ez diegu errurik botako ez badute euskaraz egiten guk nahi genukeen hainbat egoeretan, baina ahalegina eskatuko diegu eta gure laguntzarekin euskara gehiago erabiltzea lortzen dugunean errefortzu positiboak emango dizkiegu (animatu, zoriondu...).

Zertan ari garen jakitea. Argi eduki behar dugu zein den norabidea, zein diren helburu zehatzak eta zer egingo dugun helburu horietara iristeko.

- Norabidea: Ikasleek euskara asko, askorekin eta egoera askotan erabiltzea nahi dugu. Bai eskolan, baita eskolatik kanpo ere. Hori gustatuko litzaiguke.
- Gutxieneko helburua: Gaur egun gure ikasleen errealitatea abiapuntu moduan hartuta, hurrengo hilabeteetarako helburu lorgarri bat jartzea. Helburu zehatza izan behar du, neurgarria. Agian nahiko genukeen helburutik urrun egongo da baina gure taldeei egokitutako helburua izango da.
- Prozedura zehaztea: Zer egingo dugu helburu horretara iristeko? Zeintzuk izango dira erabiliko ditugun estrategiak eta nola erabiliko ditugu? Ikastetxearen eta irakasleon ezaugarrietara eta baliabideetara egokitu behar ditugu estrategiak eta horrek baldintzatuko ditu helburuetara iristeko epeak eta helburu handiak edo oso xumeak jarri ahal izatea.

Gustura aritzea. Argi baldin badugu euskara gehiago erabiltzen lagundu nahi diegula eta argi baldin badugu horretarako zer egiten ari garen, lan horretan gustura aritu gaitzke. Helburuak handiagoak edo xumeagoak, baliabide askorekin edo gutxirekin, baina gustura aritu ahal izango gara. Aldiz, helburuak argi ez edukitzeak eta zer egingo dugun ondo ez zehazteak, etsipenetik lan egitea dakar: inoiz ez gara helburura iristen (ezta hurbildu ere), gure ahaleginak ezertarako balio ez duela dirudi eta, horrez gain, ikasleei botatzen diegu errua.

2- Helburuak jartzeko modua.

Bi helburu zehaztea proposatzen dugu:

- Ikastetxe osorako gutxieneko helburua
- Ikasgeletarako helburua

Ikastetxe osorako gutxieneko helburua

Eskolako eremu osorako helburua da. Irakasle guztiok buruan izan behar genukeena eta, aukera ikusiz gero, baita eskolako gainontzeko langile eta eragileek ere (jantokiko hezitzaileek, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileek eta abar).

Eskolaren ezaugarriak eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, gutxienez gutxienez lortu nahiko litzatekeena zehaztea eta horri begirako prozedura adostea proposatzen dizuegu. Irakasle (eta langil-) guztiok eskolako eremu osoan erabiliko duguna, gurekin dabilzan ikasleak diren eta eskolako zein eremutan gauden kontuan hartu gabe.

Ikasgeletarako helburua

Hainbat kasutan eskolako gutxieneko helburua eta ikasgelarako helburua berbera izango dira. Baina beste hainbat kasutan ikasgeletarako helburu handiagoak ere jarri ahal izango dira.

Ikasgeletarako helburuak adostea eta horiek lantzeko prozedura argi izatea proposatzen dizuegu. Zikloka edo mintegika egitea egokia izan daiteke, irakasle on artean prozedurak adosteko.

Helburuak zehazteko modua

Helburuak zehaztu ahal izateko, ondorengo galdera hauek erantzutea proposatzen dizuegu:

- Euskaraz erantzuten al diete ikasleek irakasleei? Guztiek eta beti?
- Euskaraz zuzentzen al dira irakasleengana? Guztiak eta beti?
- Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraiekin elkarrizketan ari denean?
- Nola egiten dute ikasleen artean irakaslea beraien elkarrizketatik kanpo dagoenean?

Horren arabera, helburuak jarri ahal izango ditugu:

- Irakasleoi euskaraz erantzutea edota irakasleengana euskaraz zuzentzea. Hau da: irakasleokin harremana euskaraz izatea.
- Ikasleen artean euskaraz egitea irakaslea elkarrizketen parte denean.
- Ikasleek euskara mantentzea irakaslea elkarrizketatik kanpo dagoenean ere.

Helburuak zehazterakoan kontuan izan:

- Helburu bat baino gehiago izan daitezke, baina hobe bakarra edo gehienez ere bi hartzea. Helburuak prozedura eta estrategiekin lotu behar dira, eta hobe argia eta sinplea izatea.
- Helburuak gune edo egoerekin lotu daitezke: ikastetxeko eremu osorako edo ikasgelarako izan daitezke, edozein egoeretarako edo taldeka ari direnean lortzeko, espazio edo denbora tartekak zehaztu daitezke, eta abar.

Zein izango da zuen ikastetxerako gutxieneko helburua?

Zeintzuk izango dira ikasgeletara begirako helburuak?

3- Ikastetxe osorako oinarrizko prozedura proposamena.

Ikastetxeko eremu osorako gutxieneko helburu bat aukeratu badugu, helburu horri begira nola jokatu adostu beharko genuke.

Irakasle on artean irakurri ondorengo proposamena eta erantzun galdera hauei:

Egokia al da? Zer osatu edo moldatu beharko genuke? Guztiok eta aldi berean horrela jokatzek lagunduko al luke gutxieneko helburu horretara iristen?

Eta, batez ere:

**PREST AL GAUDE IRAKASLE GUZTIOK ETA MODU KONTZIENTE
BATEAN HORRELA JOKATZEKO?**

ERABILERAREN ONTZIA

IKASLEEN EUSKARAREN ERABILERAN ERAGITEKO PROPOSAMENA

Ikastetxeko eremu osorako oinarrizko prozedura

Mezua argia izango da:

- Ikasleei argi azalduko diegu euskara asko erabiltzea nahi dugula. Eskolaren helburuetako bat beraiek euskaraz (ere) ondo hitz egiten ikastea da eta horretarako asko erabili behar dute.
- Beraz, ez dugu nahi inondik inora guri gaztelaniaz egiterik, eta beraien artean euskara erabiltzeko ahalegina ere ikusi nahi dugu.
- Hori bai, badakigu batzuk ez dutela nahi bezalako erraztasunik eta lagunduko diegu. Saiatzea nahi dugu eta lagunduko diegu ahalegin horretan. Gainera, ahalegin hori ere asko baloratuko dugu.

Mezua nahi adina aldiz eman dezakegu: talde osoari, banakoei, egoera formaletan, elkarrizketa batean bertan... Irakasle bakoitzak erabaki beharko du hori.

Gurekin harremana euskaraz finkatzera begira:

Ikasleekin hizketan ari garenean, eta **ikasleren batek ez badigu euskaraz egiten**: elkarrizketan bertan ahalegina eskatuko diogu (*esan orain euskaraz–ziur badakizula hori euskaraz esaten–lagunduko dizut hori euskaraz esaten*) eta errepikatu arazi egingo diogu. Ahalegina sumatzen badugu errefortzu positiboak ere emango dizkiegu (*ikusten, gero eta hobeto egiten duzu, oso pozik nago, azkenaldian beti euskaraz egiten didazu, horrela jarraitzen baduzu...*).

Oharra: ikasle batzuekin helburua lortzea kosta egiten bada, benetan komenigarria da **intentsitate bat zehaztea**. Hau da, ikasle horiekin hainbat elkarrizketa sortzea nahita eta elkarrizketa horietan nahiko zorrotz jokatzeta.

Beraien artean euskararen erabilera indartzera begira:

Laguntzeko prest gaudenean elkarrizketan sartuko gara. Hau da, erdaraz ari direla konturatu eta elkarrizketaren parte bihurtzeko prest baldin bagaude, ahalegina eskatuko diegu.

Gure laguntzaz elkarrizketa euskarara bideratzen saiatuko gara. Hasiera batean modu ahalik eta naturalenean (elkarrizketan parte hartuz) eta beharrezkoa bada modu esplizituan eskatuz: elkarri galderak egin arazi, elkarrizketa moztu eta errepikatzekeo eskatu...

Ahalegina ere baloratuko dugu eta errefortzu positiboak emango dizkiegu.

Zenbat eta gehiagotan laguntzen diegun orduan eta errazago egingo dute eta orduan eta naturalagoa irudituko zaie.

Ikasgelarako oinarrizko prozedura**Inoiz baino euskara gehiago erabiltzen laguntzea
Euskaraz hitz egin dezaten egoera babestuak sortzea**

Ikastetxeko eremu osorako oinarrizko prozedura ikasgelan ere erabiliko dugu, baina horretaz gain honakoa ere egingo dugu:

Banakoekin elkarrizketak

- Banakoekin elkarrizketak sortuko ditugu.
- Elkarrizketa formalak: saioan zehar galdera eta erantzunekin jokatu dugu. Besteak beste: gaiari buruz galdetu, zalantzak argitzeko elkarrizketak sortu, azalpen bat ematea eskatu eta ondoren galderak egin... Beharrezkoa denean euskaraz aritzeko ahalegina eskatuko diegu, eta zuzentasuna eta hizkera egokia ere zainduko ditugu eredu aproposak eskainiz.
- Elkarrizketa informalak: tarte informagoetan elkarrizketak sortuko ditugu (ikasgelara sartzean, saioa amaitzean...). Ikastetxeko eremu osorako zehaztu den oinarrizko prozedura erabiliko dugu, eta zuzentasunari ez diogu garrantzia handiegirik emango.

Beraien arteko elkarrizketak

- Taldeka lanean maiz jarriko ditugu, talde txikietan.
- Lanean hasi aurretik erabilera helburua gogoraraziko diegu. Beharrezkoa ikusten badugu, saio guztietan. Adibidez: *euskara asko erabiltzea nahi dut, ahalegina ikusi nahi dut. Guretzat garrantzitsua da eta ahalegin hori nahi nuke. Badakizue hizkuntza bat baino gehiago ondo ikasi behar duzuela, eta euskara ondo ikasteko asko erabili behar duzue. Horretan lagundu nahi dizuet eta zuen aldetik ahalegina ere espero dut.*
- Aukeratutako gutxieneko helburuaren arabera, prozedura erabiliko dugu eta euskaraz lan egiten lagunduko diegu.
- **A aukera: Gu elkarrizketan gaudenean**
 - o Taldez talde ibiliko naiz egin behar duten ariketarekin lagunduz. Elkarrizketak euskarara bideratzeko ahalegina egingo dut.
 - o Taldez talde nabilenean ahalegina eskatuko diet: euskaraz egiteko eskatu, moztu eta euskaraz errepikatzeko eskatu, lagundu eredu emanaz...
 - o Ahalegina baloratuko dut: garrantzitsua da errefortzu positiboak ematea. Ahalegin txikiak baloratu eta mezu positiboak eman.
- **B aukera: Gu elkarrizketatik kanpo gaudenean**
 - o Ariketa egiten ari direnean, elkarrizketatik kanpo geratuko naiz.
 - o Talderen bat gaztelaniaz ari dela ohartzen banaiz, hurbildu eta ariketarekin laguntzeko aitzakiarekin, elkarrizketa euskarara bideratuko dut.

- Talde berdineran hiru aldiz hurbildu behar badut, edo beraiekin ari naizenean ez badut lortzen elkarrizketa euskarara eramatea, ahalegina eskatuko diet.
 - Denbora labur batean bada ere talde horrek euskara mantentzen duela konturatzen banaiz, hurbildu eta errefortzu positiboak emango dizkiet.
 - Saioaren amaieran, ahalegina baloratuko dut eta errefortzu positiboak ematen ahaleginginduko naiz.
- **Jarduerak baliatzea:** beraien artean hizkuntza-erabiltzea ezinbestekoa den jarduerak erabiltzea tresna lagungarria da elkarrizketak euskaraz izan daitezen lortzeko.

Tresna lagungarriak

Zer? Zelan?:

- Jokabidea: ikasle batek erdaraz egiten badigu "Zer?" galdetzea, eta berriz erdaraz egiten badigu "Zelan?" galdetzea. Berriz ere erdaraz egiten badigu: ahalegina eskatu eta aurreikusitako prozedura zaindu.
- Nori begirako estrategia da? Ikasle batzuei askotan gogorarazi behar zaie irakasleari euskaraz egiteko. Lortzen da, baina behin eta berriz eskatu behar zaie. Tresna osagariaren helburua: irakaslearentzat erraza izatea ahalegina eskatzea, eta ikaslearentzat izatea nekagarriagoa erdaraz hasi eta berriz euskaraz egin behar izatea.

Galdera ereduak erabiltzea:

- Jokabidea: ikasleren bati zerbait galdetu eta erdaraz erantzuten badu, galdera birformulatu erantzutea errazagoa izan dadin. Hau da: eredu eman galdera bertan eta erantzutera gonbidatzea.
Galdera irekia: zein da emaitza-ondorioa?
Galdera itxia ereduarekin: zein da emaitza? Ontzia ur azpira joango da edo ontzia ur gainean geratuko da?
- Nori begirako estrategia da? Euskaraz aritzeko zailtasun edo muga nabarmenak dituztenei begira, eta isilik geratu ez daitezen laguntza eskaintzeko modua izan daiteke. Batez ere egoera formal edo nahiko formaletan ematen diren elkarrizketetan erabiltzeko tresna da.

Kontuan izan: eman denbora ikasleei erantzuteko, eta beharrezkoa ikusten baduzue, adierazi denbora hori badutela. Hau da: batzuei euskaraz hastea kostatzen bazaie, lasaitasuna eta konfidantza transmititu behar dizkiegu.

4– Ikasgeletara begirako prozedura proposamena.

Ikasgeletarako helburuei begira prozedura zehaztea ere garrantzitsua da eta ikasleei euskara gehiago erabiltzen nola lagunduko diegun argi izatea.

Irakasle on artean irakurri ondorengo proposamena eta erantzun galdera hauei:

Zein izango da gure taldeetarako helburu lorgarri eta egokia? Argi ulertzen al da irakasleok nola jokatu beharko genukeen? Prest al gaude horrela aritzeko?

Eta, batez ere:

**PREST AL GAUDE IKASGAI EZBERDINETAN AHOZKOARI LEKUA EGIN,
JARDUERAK EGOKITU ETA PROZEDURA HAU MODU
KONTZIENTEAN ERABILTZEKO?**

Jarduerak egokitzea eta ahozkoari lekua egitea:

- Euskaraz diren ikasgai guztietan, gutxienez gai bakoitzean behin, saio bat (edo saioaren zati bat bederen) ahozkoa lantzeko erabiliko dugu. Intentsitate handiagoa emateko aukera bagenu, askoz hobe.
- Tarte horretan argi izan behar dugu ahozko jardunak duela lehentasuna eta beraien arteko elkarriketak euskaraz izatea bermatu nahi dugula.

Prozedura erabiltzea:

- Saio horietan ikasleak taldeka jarriko ditugu. Egoera horietan beraien artean euskaraz egitea lortu nahi dugu.
- Taldeka daudenean helburua gogoraraziko diegu. Hasiera batean behintzat, saio guztietan gogoraraziko diegu helburua. Mezua horrelako zerbait izan daiteke: *euskara asko erabiltzea nahi dut, ahalegina ikusi nahi dut. Guretzat garrantzitsua da eta ahalegin hori nahi nuke. Badakizue hizkuntza bat baino gehiago ondo ikasi behar dituzuela eta euskara ondo ikasteko asko erabili behar duzue. Horretan lagundu nahi dizuet eta zuen aldetik ahalegina ere espero dut.*

A helburua: Gure eraginez beraien artean euskaraz egitea

- Helburua: gu elkarrizketen parte garenean beraien artean euskaraz egitea.
- Prozedura:
 - o Taldez talde ibiliko naiz egin behar duten ariketarekin lagunduz. Elkarrizketak euskarara bideratzeko ahalegina egingo dut.
 - o Taldez talde nabilenean ahalegina eskatuko diet: euskaraz egiteko eskatu, norbaitek gazteleraz esandakoa moztu eta euskaraz errepikatzeko eskatu, lagundu eredia emanaz...
 - o Ahalegina baloratuko dut: garrantzitsua da errefortzu positiboak ematea. Ahalegin txikiak baloratu eta mezu positiboak eman.
- Kontuan izan: gustatuko litzaidake taldeetan euskara mantentzea baina gure helburu nagusia ni parte naizen elkarrizketa hori euskaraz izan dadin lortzea da. Eman garrantzia lorpen horri eta, erraz egiten badute, helburu handiagoa hartu.

B helburua: Beraien kabuz euskara mantentzea

- Helburua: Beraien kabuz ari direnean ere euskara mantentzea.
- Prozedura:
 - o Ariketa egiten ari direnean, elkarrizketatik kanpo geratuko naiz.
 - o Talderen bat gaztelaniaz ari dela ohartzen banaiz, hurbildu eta ariketarekin laguntzeko aitzakiaz, elkarrizketa euskarara bideratuko dut.
 - o Talde berdineran bi-hiru aldiz hurbildu behar badut, edo beraiekin ari naizenean ez badut lortzen elkarrizketa euskarara eramatea, ahalegina eskatuko diet.
 - o Denbora labur batean bada ere talde horrek euskara mantentzen duela konturatzen banaiz, hurbildu eta errefortzu positiboak emango dizkiet.
 - o Saioaren amaieran, ahalegina baloratuko dut eta errefortzu positiboak ematen ahaleginginduko naiz.

Ahozkoa lantzeko jarduerak:

- Ahozkoa lantzeko jarduerak prestatu eta aurrera eramateak prozedura erabiltzea erraztuko du.
- Edozein arlotan ahozkoa erdigunean jartzea lor dezakegu lantzen ari garen gai horretatik atera gabe (matematikak, gizarte, musika...). Are gehiago, gaia bera lantzeko bide eraginkorra izan daiteke.
- Hainbat adibide dituzue *Ahozkoa garatzeko jarduerak* eta *Elkarrizketa itxiak* dokumentuetan.

5- Jarraipena eta ebaluazioa.

Erabilera helburuak eta prozedura zehaztu badira, garrantzitsua da gaiari jarraipena egitea. Adibidez:

- Gutxieneko helburuari eta oinarrizko prozedurari dagokionez: hiru hilean behin behintzat klaustroan horri buruz hitz egitea eta prozedurak gogoraraztea.
- Zikloetan eta mintegietan ikasgeletara begirako helburuak eta prozedurak gogoraraztea gutxienez hiru hilean behin.

Modu honetako galderak erantzutea lagungarria izan daiteke tarte horietan:

- Irakasle guztiok erabili al dugu gutxieneko prozedura? Ikastetxeko eremu osoan? Prozedura argi izan dugu eta modu kontzientean erabili dugu? Erraz erabiltzen dugu? Lortu al dugu gutxieneko helburu horretara hurbiltzea? Zeintzuk dira muga eta zailtasunak? Zein izango da hurrengo hiruhilerako gutxieneko helburua? Mantenduko dugu edo aldatuko dugu?
- Zein izan dira ikasgeletako helburuak? Prozedura argi izan dugu? Egokitu ditugu jarduerak ahozkoatasunari lekua egin eta prozedurak erabiltzera begira? Adostu moduan egin dugu? Zeintzuk dira mugak edo zailtasunak? Lortzen al dugu helburu horietara hurbiltzea? Zein izango da hurrengo hiruhilerako helburua? Mantenduko dugu edo aldatuko dugu? Zein izango da prozedura?